

# Nahi dugun hiria



ULA IRURETAGOIENA

Irudikatu ezazue areto handi bat arkitektoz betea, momentuko nazioarteko ahots esanguratsuen berbaldiak entzuten. Jakin ezazue agertoki hori berriki gorpuztu dela, irailaren 8tik 10era, gure etxeetatik oso hurbil, Iruñeko Baluartean. Arkitekturaren sustapenez arduratzen den fundazio pribatu batek antolatu du, gaztelania eta ingelera nagusi eta euskararen presentziarik gabe.

“Nolakoa izan behar du nahi dugun hiriak?” galderaren bueltan aritu dira arkitekto, ekonomialari, soziologo eta bestelako diziplinak, diziplinartekotasuna hiria egiteko funtsezko oinarria dela aitortuz. Argi gelditu da hirien etorkizunak jardun beharko duela klima aldaketaren erresilientziaz, auzoen birgaitzeaz, etxebizitza parke duina sortzeaz, mugikortasun ereduaz, espazio publikoaren eskubideaz, berdintasuna bermatzeaz eta osasunaz. Konplexutasun maila handia eta zeharkatzen diren arazo mordoa dira guztiak, eta denek aho batez onartu dute etorkizuneko erronken izaera eta dimentsio berriagatik, orain arte erabilitako errezeta urbanoek ez dutela balio. Hiriaren kontzeptua krisian dago.

Azpimarragarria hiriek sortzen duten hildako eta gaixotasun kopurua eta zenbateko desberdintasun egoera sorrarazten dituzten. Zeren eta arkitektook zaleak gara egurrez, baliabide lokal eta berrerabilitako materialez egindako eraikinak eta kale berdeagoak izateko lan egiten –teknika eta estetika tarteko–, baina deserosoagoa zaigu zaintzen eta pertsona helduen aferei aurre egiteko hiri sistema egokietan pentsatzea, beste batzuen eginkizuna dela argudiatuz. Hiria tresna politiko eraldatzailea da gustatu ala ez, eta arkitektoaren eginkizuna ezinbestekoa bezain beharrezkoa da eraikuntza sozial horretan, baldin eta gutasun zabal batean –izaki bizidun ororentzat– pentsatzeko trebatua badago. ●



J. BERHOKOIRIGOIN

## Herri oso bat sar daiteke Arbonan

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Errosleak azkenean ez ditu Arbonako etxe eta lursaila erosiko. ELB eta Lurzaindiako kideen eta hauei juntaturiko herritarren aitzinean amore eman behar izan du. Okupazioak oraindik segitzen du, saltzaileak 3 milioi euroren gose segitzen duelako eta negoziaketa fasean okupaziotik bideratu presio, indar, elkartasun eta kolektibotasunak baduelako eragina. Adostasun batera heldu ala ez, urriaren 24an emanen diote bukaera okupazioari, garaipena ospatuz –eta argi utziz lur hauek laborantzara bideratzearen alde segituko dutela erne–. Orotara 124 eguneko okupazioa beraz okupazioaren ohitura arras guti duen eta jabetzari errespetu handia bideratzen dion Ipar Euskal Herrian. Zenbat jende pasa da okupaziotik? Anitz. Ehunka, eta beharbada milaka. Hala ere, irudikatzen nuena baino gutiago. Nago, *Euskal Herria ez da salgai* lema lau haizetara zabaltzen dabilzan anitz ez direla bertaratu. Konfinamenduak etxebizitzaren arazoa sekulan baino gehiago begibistan ezarri zigula, laster loratu ziren afixa, pintaketa eta ekintza sinbolikoak. Proporzionalki, amorratu eta motibatu anitzez gehiago irudikatzen nituen bertaratzen. Hego Euskal Herritik ere elkartasun gehiago espero zitekeen, lurren desagerpenaren eta espekulazioaren arazo orokortuei herri gisa erantzuteko aukera polita izan zitekeelako Arbonakoa. Nago Lekarozko Aroztegiaren kontrako mugimenduak lortu duen herri-elkartasuna ez duela lortu Arbonakoa. Herri gisa arazo bat dugu hor. Has gaitzen *mugarik ez!* lema gure barrenetarantz oihukatzen... badelako garaia eta presa herri gisa erantzuteko diruaren izenean lurra –eta hortik herria– suntsitzen dabilzane. ●

Arbonakoarekin ELB eta Lurzaindiak lortu dute konbentzitzen lurraren problema ez dela bakarrik laborarien problema. Bertan batu aniztasuna dugu frog. Lurrama hor ospatuko da aurten, oinarrian eta bere baitan duen kutsu politikoa sekulan baino gehiago bistaratu. Laborarien eta laborari ez direnen arteko topagune izan nahi du Lurramak; laborantza eta elikadura erabat politikoak direla ohartarazteko gune izan nahi du; eta apairu oro jendarte justuago baten alde egiteko boterea dugula azaltzen dabil. Funtsean, helburu horiek bete ditu okupazioak. Okupazio honi bukaera emanen dio Lurramak urriaren 24an. Hamabost hektarea eremu zabala da, herri oso bat kabituko daiteke bertan! ●